

**GOGOLEN ARIMA HILAK ELEBERRIKO  
KULTURA ERREFERENTZIEN  
ITZULPENAREN AZTERKETA BAT**

GRADU AMAIERAKO LANA

Itzulpengintza eta Interpretazioko Gradua

Ikasketa klasikoko saila: Eslaviar ikasketak

Ikaslea: Nerea Diaz Alkorta

Tutorea: Iker Sancho Insausti

Ikasturtea: 2016-2017

## **ABSTRACT**

Lan honetan Nikolai Vasilievitx Gogolen *Arima Hilak* eleberriko kultura-erreferentzien itzulpena aztertuko dugu. Horretarako, errusierazko kultura-kontzeptuak eta horiei emandako euskal ordainak identifikatuko ditugu. Datuak corpus batean bildu ondoren, analizatu egingo ditugu itzultzaileak zein baliabide erabili dituen ikusteko. Horrez gain, testu osoan zehar kulturaren barruko elementuak itzultzeko prozedurak berdinak izan diren eta itzultzaileak koherentzia mantendu duen aztertuko dugu.

Lehenik eta behin, kultura zer den definitu eta itzulpengintzan, eta bereziki itzulpen literarioan, kultura-erreferentziei nola aurre egin adieraziko dugu. Horretarako, itzulpengintzan erabiltzen diren teknika zein baliabideez baliatuko gara. Bestalde, kultura osatzen duten elementuak sailkatzeko proposamen desberdinak agertuko ditugu. Bigarrenik, sorburu-testuaren (aurrerantzean, ST) egileari buruz, itzultzaileari buruz eta obrari berari buruz jardungo gara. Jarraitzeko, identifikatutako kultur erreferentzien adibideen analisiari ekingo diogu. Errusierazko testutik ateratako adibideak beraien euskal ordainekin corpus batean bildu ondoren, itzulpen-baliabideen eta itzultzaileak hartutako erabakien inguruko hausnarketa bat egiteko. Azkenik, ateratako emaitzetan oinarrituz, gure ondorioak aurkeztuko ditugu.

**Hitz gakoak:** kultura-erreferentzia, itzulpen-baliabideak, euskal ordaina

## AURKIBIDEA

1. Sarrera.....	4
2. Kultura itzultzen.....	6
2.1. Kultura-kontzeptuen sailkapena.....	7
2.2. Itzulpen-baliabideak.....	7
3. Egileari, itzultzaileari eta obrari buruz:.....	9
3.1. Jose Morales Belda.....	9
3.2. Nikolai Vasilievitx Gogol.....	9
3.3. <i>Arima Hilak</i> .....	10
4. <i>Arima hilak</i> liburuan ageri diren kultura-kontzeptuen euskaratzea: corpus bidezko azterketa bat.....	11
a) Kultura materiala.....	11
b) Kultura soziala.....	18
c) Erakundeak.....	22
d) Pertsona-izenak eta leku-izenak.....	24
5. Ondorioak.....	28
6. Bibliografia.....	30

## 1. SARRERA

Gradu Amaierako Lan honetan, Nikolai Vasilievitx Gogolen obra nagusian, *Arima Hilak* eleberrian, errusiar kulturari erreferentzia egiten dieten elementuak nola itzuli diren agertuko dut.

Kontuan izan behar da obra hau, errusiarren eta errusiar bizitzaren ingurukoa den heinean, kulturarekin lotutako kontzeptuz beteta dagoela. Jakina da itzultzeak, posible den neurrian, sorburu-testuko (aurrerantzean, ST) ezaugarrien esanahia eta xehetasunak galdu gabe xede-testuan (aurrerantzean, XT) adieraztea eskatzen duela, eta hori lortzeko, itzulpengintzak baditu hamaika teknika eta baliabide. Hala dio Cillerok (1996): «Kultura jakin bateko termino bereziren bat itzultzean, batzuetan ezinezkoa da XHn hitz egokirik aurkitzea eta bestelako irtenbideak bilatu behar izaten dira: mailegua, kalkoa, azalpena, parafrasia...». Horiek oinarritzat hartuta, itzultzaileak sorburu-hizkuntzako (aurrerantzean, SH) kultur hitzak xede hizkuntzan (aurrerantzean, XH) emateko erabili dituen konponbideak aztertuko ditugu euskal irakurle baten ikuspuntutik. Ohartuko gara itzultzaileak hainbat itzulpen-prozeduraz baliatuko dela obraren itzulpenean, eta horren inguruko hausnarketa eskainiko dugu.

STri zor zaion fideltasunaren inguruan hau da Moralesek dioena: «itzultzaileak zintzo jokatu behar du, ezin dio irakurleari ziririk sartu, ezta liburua idatzi zuenari saldukeriarik egin ere. Zintzotasuna diot, zeren itzultzaileak badaki irakurleak ez duela itzulpena jatorrizko testuarekin alderatuko eta, horrenbestez, ez diela akatsei edo hutsei antzik emango» (Biguri, 1998). Baina, hain zuzen ere, horixe da guk egin duguna.

Lanari hasiera emateko, kultura zer den eta zein ezaugarri biltzen dituen zehaztuko dugu. Eta ezaugarri horiek sailkatu ahal izateko, Nidak (1975) eta Newmarkek (1988) proposatzen dituzten sailkapenetan oinarrituko gara. Sailkapen horiek kulturaren arlo desberdinak banatzeko balio izan dígute, baina moldatu egin ditugu errusiar kulturaren barruan sartzen diren elementu esanguratsuenak azaleratu ahal izateko. Jarraitzeko, *Arima Hilak* eleberriaren egileari eta euskarazko bertsoaren egileari bi hitz eskainiko dizkiogu. Era berean, nobelari berari buruz jardungo naiz. Lanaren alderdi teorikoa alde batera utziz, alderdi praktikoari ekingo diogu hurrengo atalean. Burutzeko, STko kultura-erreferentziak eta horien itzulpenak bilduko ditugu corpus batean. Itzulpen-baliabideen inguruko hausnarketa bat egin eta euskal irakurlearen ikuspuntutik aukera egokienak zeintzuk izan daitezkeen eta erabaki desberdinen arteko koherentzia

mantentzen ote duen aztertuko dugu. Gradu Amaierako Lan honi bukaera emateko, bertatik ateratako ondorioak plazaratuko ditugu.

## 2. KULTURA ITZULTZEN

STetan agertzen diren kultur erreferentziak XTetara nola eraman behar diren ikusi baino lehen, komeni da «itzulpena» eta «kultura» zer diren zehaztea. Honela definitzen du Euskaltzaindiaren Hiztegiak «itzuli» aditza: «Hizkuntza batean esan edo idatzi dena beste hizkuntza batean esan edo idatzi». Definizio hori irakurrita, beraz, itzultzaile batek STaren esanahia aldatu gabe sortuko du testua XHn, eta bera besterik gabe bitartekaria izango da. Culleren (1976) iritzian, «*one of the troublesome problems of translation is the disparity among languages*» (Ordudari, 2007). Alegia, hizkuntzek beraien artean dituzten desberdintasunek zaildu egiten dute itzulpen prozesua. Bederen familia berekoak diren hizkuntzek ezaugarri ugari partekatuko dituzte, baina euskararen kasuan, familia bereko hizkuntzarik ez daukanez, zailtasun maila berdina izango du gaztelaniatik, frantsesetik edota errusieratik itzultzeak.

Orain itzulpen orokorra alde batera utzi eta itzulpen mota bati erreparatuko diogu, itzulpen literarioari hain zuzen. Errusieratik zuzenean literatura-lan gehien euskaratu duen itzultzaileak, Jose Moralesek, Koldo Biguriri eskainitako elkarrizketa batean dioenez (Biguri, 1998), «liburu bat edo beste itzultzeko zailtasuna ez datza, nire ustez, jatorrizko hizkuntzan bertan, itzuli nahi den autorearen idazkeran edo liburu jakin baten ezaugarrietan baizik». Horrenbestez, itzulpenak berez dituen zailtasunei, idazle baten idazkera motari edota liburuaren ezaugarriari kultura gehitzen badiogu, are zailago izango da itzulpen prozesua. Baina zer da «kultura»? Honela definitzen du kultura Newmarkek (1988): «*I define culture as the way of life and its manifestations that are peculiar to a community that uses a particular language as its means of expression*». Beharbada oraindik ez dugu oso argi komunitate bateko zein elementu sartzen diren «kulturan», baina horretan Harluxet Entziklopediaren definizioak lagun gaitzake, kulturaren barruko elementuak nolabait sailkatu egiten baititu: «Herri edo zibilizazio bateko gizarte-egitura eta ezagutza edo fenomeno zientifiko, artistiko edo erlijiosoen multzoa». Noski, kulturaren eta sailkatutako elementu horien artean ere hizkuntza unibertsalean sartzen diren hitzak daude, eta horiek orokorrean ez dute arazorik emango. Aldiz, itzulpen-arazoak egongo dira «*due to the cultural 'gap' or 'distance' between the source and target languages*» (Newmark, 1988). Hau da, badaude ST eta XTetan gainjartzen diren hitzak edota bi errealitateetan ondo ezagutzen direnak, eta horiek errazak dira identifikatzen, hitzez hitz itzul daitezkeelarik. Hala eta guztiz ere, «*many cultural customs are described in ordinary language, where literal translation*

*would distort the meaning and a translation may include an appropriate descriptive-functional equivalent»* (Newmark, 1988). Beraz, egunerokotasuneko hizkuntzan deskribatzen diren erreferentzia horien esanahia ez aldatzeko, baliokide deskriptibo-funtzional egokia txertatu beharko litzateke itzulpenean. Itzulpen-baliabideak aurrerago ikusiko ditugu.

## **2.1. Kultura-kontzeptuen sailkapena**

*Arima Hilak* irakurtzen nindoan heinean, kultura identifikatu ahal izateko eta ondoren kultura-alor desberdinetan sailkatu ahal izateko, ezinbestekoak izan zaizkit Nidak (1975) eta Newmarkek (1988) bere garaian proposaturiko sailkapenak.

Nidak (1975: 68-78) honela sailkatzen ditu kulturaren alderdi desberdinak:

- a) Ekologia
- b) Kultura materiala
- c) Kultura soziala
- d) Kultura erlijiosoa
- e) Kultura linguistikoa

Sailkapen hori hartu, moldatu eta osatu ondoren hau da Newmarkek (1988) proposatzen duena:

- a) Ekologia: animaliak, landareak, mendiak...
- b) Kultura materiala: janaria, jantziak, etxeak, garraiobideak.
- c) Kultura soziala: lana eta aisia.
- d) Erakundeak, ohiturak eta ideiak: alderdi politiko, sozial, legal, erlijioso eta artistikoak.
- e) Keinuak eta ohiturak.

Nire analisisan adibideak bloketan banatzeko, Newmarken sailkapenean oinarritu naiz, osatuagoa eta zehatzagoa iruditzen baitzait. Hala ere, komentatzeko interesgarriak iruditu zaizkidan adibide batzuk ere aurkitu ditudanez, horiek atal desberdin batean sartzea erabaki dut. Aurrerago agertuko dut nire sailkapen propioa, hots, nire corpuseko datuen azterketan aplikatu dudana.

## **2.2. Itzulpen-baliabideak**

Kultura sailkatzeko irizpideak azalduta, kulturarekin loturiko kontzeptuak itzultzeko eskura ditugun baliabideen sailkapenari (Newmark, 1988: 82-93) helduko diogu, izan ere, kulturarekin zerikusia duten kontzeptuak antzeman ez ezik, itzultzaileak kultur erreferentziak itzultzeko erabili dituen itzulpen-baliabideak ere aztertu ditut.

• **Transferentzia.** SHko hitzak bere horretan uzten dira, aldatu gabe, testuinguruak azaltzen dituelakoan. Errusieraren kasuan, halere, esan gabe doa hitzak bere horretan utzi arren, horiek transliteratzea ezinbestekoa izango dela. Literaturan ohikoa da kultur hitzak transferitzea eleberriari originaltasun kutsua emateko eta irakurlea erakartzeko. Azken finean, itzultzailearen egitekoa irakurleek ideiak ulertzea da.

• **Kultura-baliokidea.** Xede-kulturan (aurrerantzean, XK) ezagutzen den baliokide batekin ordezkutzen da sorburu-kulturako (aurrerantzean, XK) erreferentzia.

• **Baliokide funtzionala.** Kulturalki neutrala da, hau da, ez dio kultura konkretu bati erreferentzia egiten.

• **Baliokide deskribatzailea.** Itzultzaileak hitz gutxitan azaltzen du kultur erreferentzia.

• **Oharrak.** Oin-oharrak txertatzen dira kultur hitz batek azalpen luze bat behar duenean testuaren ulermenean arazorik sor ez dadin.

• **Gehikuntza.** Inolaz ere ez dira itzultzailearen gogora erabili behar: dagokion pasartean inplizituki agertzen dena baizik ez da azaldu behar testuan. Ezin dira erantsi datu kulturalak, nahiz eta interesgarriak izan, itzultzen den pasarteko hitzen zentzuan islatzen ez badira. Halaber, ezin dira erantsi testuaren beste pasarteetatik hartutako informazioak, eta are gutxiago kanpoko testuetakoak.

• **Elipsia.** Elementu linguistikoak testutik ezabatzean datza, betiere esanahia aldatzen ez badu. Edonola ere, literatur testuetan elipsiarekin zuhur jokatu beharko da, eta kultur hitzak agertzekotan, ez ezabatzeko ahalegina egin beharko da.

• **Zeharkako itzulpena.** Hitzez hitzeko itzulpena, «kalko» edo «mailegu» bezala ere ezagutzen da.

Arreta handia jarri behar diegu itzulpen-baliabideei, eta gogoan izan behar da «testuan erabilitako baliabideei eutsi egin behar zaiola. Ez da komeni testu berean egokitzapenak hemen, hitzez hitzeko itzulpenak hor eta jatorrizko hitzak han aurkitzea» (Cirello, 1996). Analisisian zehar ikusiko dugu itzulpen lan honetan itzultzaileak koherentziaz erabili dituen itzulpen-baliabideak eta egindako hautuak egokienak izan diren ala ez.



### 3. EGILEARI, ITZULTZAILEARI ETA OBRARI BURUZ

Lan hau burutzeko, euskarazko bertsiotik abiatu naiz, eta errusiar kulturari erreferentzia egiten zion ezer aurkitzen nuenean, errusierazko bertsiora jotzen nuen. Horrenbestez, bi egileren jarduna aztertu behar izan dudanez, iruditzen zait ezinbestekoa dela bien biografia eta lanari buruz apur bat mintzatzea.

#### 3.1. Jose Morales Belda

Bilbon jaio zen 1960. urtean familia erdaldun batean. Hala ere, 18 urte zituelarik, euskara ikasteari ekin zion, eta, AEKn irakasle jardun ostean, gaur egun bere kabuz dihardu itzultzaile lanetan. Errusiera «arrazoi kultural eta ideologikoengatik» ikasi zuen, eta nola ez, «oso gogoko izan duelako beti Errusiako literatura». Errusieratik euskarara zuzenean itzuli zuen lehenengo itzultzailea izan zen (1995. urtean, Gorkiren *Ama*), eta bera da norabide horretan literatura-obra gehien itzuli dituena. Geroztik, beste zazpi obra nagusi euskaratu ditu, besteak beste, Puxkinen *Kapitainaren alaba*, Gogolen *Arima hilak* eta Lermontoven *Gure garaiko heroia*. Azken nobela hori EIZIEk eta Eusko Jaurlaritzak elkarlanean antolatzen duten Literatura Unibertsala bildumako itzulpen lehiaketarako egin zuen. Itzulgaiak proposatu zitezkeen, eta Moralesek *Gure garaiko heroia* sartzeko eskaera egin zuen. Bidalitako laginari esker irabazi eta 1996an argitaratu zuen eleberria. Urtebete beranduago, eleberri horrekin eskuratu zuen Euskadiko Literatura Saria.

#### 3.2. Nikolai Vasilievitx Gogol

1809. urtean jaio zen Sorotxinski izeneko herrian, Ukrainan, eta Moskun zendu zen 1852an. XIX. mendeko errusiar errealismoaren –errusiar literaturaren urrezko aroaren– aitzindaria da. Errusiar literaturak eman dituen idazlerik garrantzitsuenetarikoa da, literaturaren loraldiari eman baitzion hasiera Lermontovekin eta Puxkinekin batera. Azken hori adiskide zuen Gogolek, hain zuzen ere, Puxkinek berak gomendatu omen zizkion *Arima hilak* eleberriaren gaiak.

Antzerki-lanak zein eleberriak idatzi zituen, eta bere lanen artean, euskaratuak izan direnak hauek dira: *Bi kontu Petersburgeko* (Txertoa, 1990), *Sudurra* (Elkar, 1992) eta *Longaina* (Erein, 1993) eta *Arima hilak* (Ibaizabal, 1998). Nabarmenezkoa da Gogol dela errusiar literaturatik gehien euskaratu den idazlea.

### **3.3. *Arima Hilak* (1842)**

*Arima Hilak* Gogolen lan nagusia da. Hamazazpi urte eman zituen idazten, 1825etik 1841era, baina ez zuen lan osoa amaitu. Liburuak hiru tomo izan behar zituen arren, bi idatzi eta bakarra argitaratu zen. Beraz, lehen zati hori soilik sarrera antzeko bat litzateke, bigarren eta hirugarren zatian egon behar baitzuen bere bizitzako lan nagusi honen mamia. Egia esateko, bigarren tomoarekin etsita zegoen, ordurako gaixorik baitzegoen. Osasunak hobera egiten zuenean ekiten zion idazteari, baina kapituluak behin eta berriz idatzi behar zituen bere gustuko zen zerbait sortzeko. Azkenean, 1852an, otsailaren 11tik 12rako gauean, hain zuzen, erre egin zuen bigarren tomoaren eskuizkribua, eta handik hamar egunera, hil egin zen. Bost kapitulu edo, are zehatzago, bost kapituluren zirriborroak baino ez ziren berreskuratu. Bigarren tomoa 1855. urtean argitaratu zen.

Gogolen nobela ezagunenak Pavel Ivanovitx Txitxikoven istorioa aurkezten digu. Bere helburua, eleberri osoan zehar, hilda dauden baina erroldan jarraitzen duten nekazari hilak, hots, arima hilak, erostea da, eta beraz, herriz herri eta etxez etxe dabil erosketa bitxi hori burutu nahian. Haatik, eleberriaren elementurik garrantzitsuena da XIX. mendeko errusiar jende motak ezagutuko ditugula, baina kritika gogorrez.

#### 4. ARIMA HILAK LIBURUAN AGERI DIREN KULTURA-KONTZEPTUEN EUSKARATZEA: CORPUS BIDEZKO AZTERKETA BAT

Liburua euskaraz irakurri eta errusiar kulturari erreferentzia egiten zioten elementuak aurkitu ostean, errusierazko testura jo nuen itzultzaileak emandako euskal ordainari jatorrizko testuan zer zegokion ikusteko. Adibideak testuinguruan ondo ikusi ahal izateko, corpus paralelo bat sortu nuen, hau da, taula bat non errusierazko testu zatia taularen ezker aldean dagoen, eta euskarazko bertsioa, eskuinaldean. Horixe da, hain zuzen, lan honen helburu nagusia: espresuki errusierazko kultura-kontzeptuak eta horien euskal ordainak aztertzeke osatutako corpuseko datuak analizatzea.

Arestian esan dudan moduan, Nidaren (1975) eta Newmarken (1988) sailkapenetan oinarritu naiz nire adibideak sailkatzeko, baina kasu batzuetan, egoera paradoxikoak gertatzen ziren: batzuetan ez nuen adibide nahikorik atal guztiak betetzeko, eta beste batzuetan, alderantziz, ez nuen adibide batzuk sartzeko moduko atalik. Beraz, testuan topatutako kultura-erreferentziak lau irizpideren arabera sailkatu nituen:

- a) Kultura materiala
- b) Kultura soziala
- c) Erakundeak
- d) Pertsona-izenak eta leku-izenak

a) **Kultura materiala**: sukaldea, jakiak, edariak, jantziak, herri eta etxe motak

Herri bakoitzeko ohiturak direla eta, kultura materiala itzultzea oso zaila izan daiteke, erabiltzen diren objektuak, toki konkretu bateko elementuak izan daitezkeelako. Gainera, kontuan izan behar dugu eleberria XIX. mendekoa dela, beraz, gerta liteke ere gaur egun toki berean elementu asko ezagutu ere ez egitea.

##### o **Sukaldea**

Lehenengo adibide honetan, garai hartan Errusian erabili ohi ziren sukaldeko tresnak ikusiko ditugu.

(...) куда ежедневно отправляются расторопные тещи и свекрухи, с кухарками позади, делать свои хозяйственные запасы и где горами белеет всякое дерево - <b>шитое, точеное, леченое и плетеное: бочки,</b>	(...) amaginarreba maratzak — sukaldariak atzean dituztela— egunero joaten dira merkatu horietara etxeko erosketak egitera, eta mota guztietako ontziak aurkitzen dituzte han pilaturik, <b>zur leundu, torneatu, txirikordatu zein</b>
---	---

пересеки, ушаты, лагуны', жбаны с рыльцами и без рылец, побратимы, лукошки, мыкольники, куда бабы кладут свои мочки и прочий дряг, коробья' из тонкой гнутой осины, бураки из плетеной берестки и много всего, что идет на потребу богатой и бедной Руси.	<b>zizelatuzkoak:</b> upelak, suilak, pitxerrak, morkoak, tina euskarridunak eta euskarrigabeak, otarretxoak, saskiak, emakume nekazariak liho-sortak eta bestelako huskeriak eramateko erabiltzen dituzten otzarak, lertxun-zur finezko kutxak, urki-azal txirikordatuzko ontzi biribilak eta beste gauza asko, Rusen txiroek zein aberatsek baliatzen dituztenak.
---	---

Nire iritzi apalean, itzultzaileak lan ona egin du testu zati honetan, izan ere, nahiz eta objektu askoren artean desberdintasunik ere dagoen ez dakidan arren (saskiak eta otarretxoak), elementu guztiei baliokide funtzional bat eman die.

○ **Jakiak**

В этой конурке он приладил к стене узенькую трехногую кровать, накрыв ее небольшим подобием тюфяка, убитым и плоским, как блин, и, может быть, так же замаслившимся, как блин, который удалось ему вытребовать у хозяина гостиницы.	Gela ziztrin horretan, hiru hankako ohe estu bat hormara hurbildu, eta lastairantzeko bigungarri txiki bat ipini zuen gainean, <b>taloa</b> bezain zapal eta mehea, eta, nonbait, eske eta eske ibilita ostatuaren jabearengandik lortu zuen <b>opila</b> bezain koipetsua.
---	---

Kultura-baliokidea eta baliokide funtzionala: lehendabizi «talo» bezala itzultzen du блин, eta ondoren, «opil» bezala. Hala ere, kasu honetan, uste dut koherentzia falta hori justifika daitekeela, testuinguruak mugatu egiten baitu. Konparaketa baten aurrean gaude: «taloa bezain zapala» eta «opila bezain koipetsua»; eta nik ondo ikusten dut erabaki hau, zeren, taloa ez da opil bat bezain koipetsua, eta opil batek ez du zertan zapala izan, mota askotakoak izan daitezke.

(...) внизу были лавочки с хомутами, веревками и <b>баранками</b> .	Ostatuaren beheko aldean denda txiki batzuk zeuden, non sokak, <b>uztai-formako ogitxoak</b> eta zamarietzako lepokoak saltzen baitzituzten.
Попадались почти смытые дождем вывески с <b>кренделями</b> и сапогами, (...)	Euriak ia ezabaturiko horma-irudiak ikus zitezkeen nonahi: hemen, botak eta <b>zortzi-itxurako opilak</b> zeuzkaten pintaturik; (...)

Baliokide deskribatzailea: adibide horietan, bi hitzak mantendu eta oin-oharrak jarri orde, edota guk ezagutzen dugun antzeko opilen baten izenak erabili orde, testuan

bertan nolako itxura duten azaltzea erabaki du itzultzaileak. Garrantzitsua da irakurlearentzat jakitea zer itxura duten jakiek, hala, ondo irudikatuko dutelako eta hobeto ulertuko dutelako.

○ **Edariak**

(...) говорили ли о добродетели, и о добродетели рассуждал он очень хорошо, даже со слезами на глазах; об выделке <b>горячего вина</b> , и в <b>горячем вине</b> знал он прок;	(...) bertuteez jarduten bazuten, oso ondo arrazoitzen zuen bertuteez, begietatik malkoak zerizkiola; <b>pontxeak</b> prestatzeko moduz eztabaidatzen baziren, <b>pontxe</b> kontuetan ere aditua zela agertzen zuen;
(...) пирушку на русскую ногу с немецкими затеями: аршадами, <b>пуншами</b> , бальзамами и проч.	Errusiar tankerako oturuntza izan zen, baina osagai alemaniarrekin: likoreak, <b>pontxeak</b> , baltsamuak eta abar.

Baliokide funtzionala: *Горячее вино* besterik gabe «ardo beroa» da, beraz, ez dakit ondo zergatik ez duen hala itzuli, batez ere, *нуни* itzultzeko «pontxeak» ordaina erabiltzeko aukera ere izanda.

В угольной из этих лавочек, или, лучше, в окне, помещался <b>сбитенщик</b> с самоваром из красной меди и лицом так же красным, как <b>самовар</b> ,	Kantoiko dendarxoan, edo, zehatzago esanik, dendarxoko leihoan, <b>sbiten - saltzailea</b> jarri ohi zen, kobre gorritzko <b>samovarra</b> aldamenean zeukala.
---	--

Transferentzia eta oin-oharrak: *sbiten*: «eztiz eta espeziaz eginiko edari beroa»; eta *самовар*: «ur irakina lortzeko eta bero edukitzeko ontzi metalezkoa. Tea prestatzeko erabili ohi da». Nire ustez, euskal irakurleak termino horiek ezagutzea ahalbidetzen dute itzulpen-baliabide horiek, eta erabaki ona dela deritzot, azken finean, ez dugu ahantzi behar errusiar obra baten aurrean gaudela.

○ **Jantziak**

Hurrengo adibideetan, buruko mota ezberdinak nola itzuli dituen aztertuko dugu, bereziki, «txano» ordaina errusierazko zein hitz itzultzeko erabili duen:

Попадались почти смытые дождем вывески с кренделями и сапогами, кое-где с нарисованными синими брюками и подписью какого-то Аршавского портного; где магазин с картузами, <b>фуражками</b> и надписью: (...)	Euriak ia ezabaturiko horma-irudiak ikus zitezkeen nonahi: hemen, botak eta zortzi-itxurako opilak zeuzkaten pintaturik; hor, berriz, galtza urdinak Arshoviako jostun baten sinaduraren alboan; han, kapeluak eta <b>txanoak</b> saltzen zituen denda bat ageri zen, idazpuru honekin: (...)
Цветы и ленты на <b>шляпе</b> , вся веселится бурлацкая ватага, прощаясь с любовницами и женами, высокими,	<b>Txanoak</b> lorez eta xingolaz apaindurik, jai-giroan zoak batera eta bestera zirgatzaille-taldea, idunekoz eta xingolaz

стройными, в монистах и лентах; (...)	ederturiko maitale eta emazte lerdenei agurka.
Платье на ней было совершенно неопределенное, похожее очень на женский капот, на голове <b>колпак</b> , какой носят деревенские дворовые бабы, только один голос показался ему несколько сиплым для женщины.	Itxura zehatzik gabeko soinekoa zeukan jantzirik, emakumezkoen mantalen oso antzekoa, eta herrietako neskameek erabili ohi dituzten <b>txano</b> horietako bat zeraman buruan, baina ahots-doinua zakarregia iruditu zitzaion Txitxikovi, lodiegia emakume batentzat.
Молодой человек оборотился назад, посмотрел экипаж, придержал рукою <b>картуз</b> , чуть не слетевший от ветра, и пошел своей дорогой.	Atzerantz jiratu zen mutil gaztea; kotxeari begiratu, eskuaz <b>kapeluari</b> heldu, haize-bolada baten eraginez galtzeko zorian egon baitzen, eta bere bideari jarraitu zion.

*Фуражка* bat soldaduek erabiltzen duten buruko mota bat da. Nire ustez «txanoa» ez da errusiar hitz hori itzultzeko ordainik egokiena, izan ere, txanoak normalean oihalez eginak dira, eta kasu honetan egileak ez du halako buruko bat irudikatzen. Beharbada gehiketa batera jo beharko luke eta «kapela militarra» erabili, edo ostera, azalpen bat eman. Errusierazko testuak bigarren adibidean irudikatzen duen burukoa eta hirugarren adibidekoa ez dira berdinak, nahiz eta itzultzaileak berdina itzuli dituen. Hala ere, nire ustez, ez du hautu egokia egin, *шляпа шляп* bat eta *колпак* bat guztiz desberdinak baitira. Euskaltzaindiaren Hiztegiak dio txanoak buru estalki konikoak direla, hain zuzen *колпак* baten antzera, beraz, ez legoke gaizki. Aldiz, *шляп шляпа* bat ez da konikoa eta hegalak ditu; kapela baten antza hartzen diot nik (Euskaltzaindiaren Hiztegian kapela bat gehienetan hegalduna dela dio). Hortaz, hirugarren kasuan «txano» ordaina ematea ondo dagoela uste dudana arren, lehenengoari «kapela» ordaina emango nioke, edo gutxienez, bi hitzak desberdintzen dituen baliokideren bat. Azkeneko adibidean ikus dezakegu *картуз* itzultzeko «kapelu» erabili duela baita ere, baina ez du aurrekoarekin zerikusirik. Bisera baten antza handiagoa du, aurrealdean hegala baitu; beraz, baliokide hori eman liezaioke.

Hori guztiaz gain, «mantala» zer itzultzeko erabili duen ere aztertuko dugu:

На ней хорошо сидел матерчатый шелковый <b>капот</b> бледного цвета; (...)	Nahikoa polita zen, itxura onekoa. Kolore argiko <b>mantal</b> bat zeukan soinean, sedazkoa, oso ondo ematen ziona; (...)
Проснулся он ранним утром. Первым делом его было, надевши <b>халат</b> и сапоги, отправиться через двор в конюшню приказать Селифану сей же час закладывать бричку.	Goizean goiz esnatu zen. Oroz lehen, <b>mantala</b> eta oinetakoak jantzi, patioa zeharkatu, eta ukuilura joan zen, Selifani kotxea bertantxe presta zezala agintzera.

«Mantala» hitzaren kasuetan, *каном* zein *халат* hitzei aplikatzen die izen berbera. Nire ustez zilegi da hitz berdinarekin itzultzea, izan ere, oso antzekoak dira biak. Baina ez dut uste «mantala» hitzarekin ondo irudikatzen ditugunik errusierazko bi izen horiek. Apika itzulpen-baliabiderik errazena eta eraginkorra transferentzia izango litzateke, oin-ohar batek lagunduta.

Он выбежал проворно, с салфеткой в руке, - весь длинный и в длинном демикотонном <b>сюртуке</b> со спинкою чуть не на самом затылке...	Lasterka hurbildu zen, ezpainzapia eskuan. Luzea zen oso, eta <b>lihozko jaka</b> luze bat zeukan jantzirik, bizkarraldea ia garondoraino bertaraino iristen zitzaioa.
--	--

Gehiketa: errusieraz besterik gabe *jaka* bat dela esaten du, ez du zehazten materiala, baina itzultzailearen hautua justifikatu daiteke esanez era honetara irakurleak hobeto irudikatuko duela *jaka* mota hori. Naatik, nire iritzian, ezin daiteke koherentzia falta justifikatu (baldin eta esaldi berean bi ordain berdin behar badira eta sinonimoetara jo behar bada). Ondorioz, inkoherentzia adibide bat izango genuke:

Чемодан внесли кучер Селифан, низенький человек в <b>тулупчике</b> , и лакей Петрушка, малый лет тридцати, в просторном подержанном <b>сюртуке</b> , как видно с барского плеча, малый немного суровый на взгляд, с очень крупными губами и носом.	Selifan moztaka zen eta <b>ahari-larruzko beroki</b> luze batez jantzirik zegoen. Petrushkak, berriz, hogeita hamar urte inguru zituen eta soinean <b>jaka</b> lasai bat zeraman, maiztua, behinola nagusi jaunak erabilia noski; sudur handia eta ezpain lodiak zituen, eta zakar samarra ematen zuen lehen begiratuan.
--	--

Lehenago *сюртук* itzultzeko gehiketa erabili badu («lihozko jaka»), hitz berdina berriz agertzen bada, normalena litzateke ordain berdina erabiltzea, koherentzia mantenduz.

Hona hemen itzultzailearen beste inkoherentzia bat:

Герои наши видели много бумаги, и черновой и белой, наклонившиеся головы, широкие затылки, фракы, <b>сертуки</b> губернского покроя и даже просто какую-то светло-серую куртку, отделившуюся весьма резко (...)	Euriak ia: Gure protagonistek paper asko ikusi zituzten —hala zirriborroak, nola orri zuriak—, eta buru makurtuak, garondo zabalak, frakak, probintzietako <b>longainak</b> , eta jaka gris argi bat ere, oso zakar nabarmentzen zena.
---	--

«Jaka» zein «lihozko jaka» erabiltzeko erabakia hartu badu, ez luke ordaina aldatu behar. Gainera, «longain» hitzak euskaraz badu tradizioa, eta ondorengo adibidean ikusiko dugu errusierazko zein hitzen ordaina den:

(...) куда уже успел притащить свою <b>шинель</b> и вместе с нею какой-то свой собственный запах, который был сообщен и принесенному вслед за тем мешку с разным лакейским туалетом.	Ordurako, hara eramana zuen bere <b>longaina</b> eta, harekin batera, bere usain berezia, lekaio-jantziak gordetzeko erabiltzen zuen fardelari ere itsatsirik.
--	--

Gogolen *Шинель* nobelaren euskarazko itzulpena 1993an argitaratu zen (Arima Nilak baino bost urte lehenago) eta *Longaina* izenburua jarri zion Xabier Mendigurenek. Horrenbestez, nire aburuz, itzultzaileak «longain» erabili beharko luke *шинель* agertzen den guztietan itzultzeko.

○ **Herri eta etxe motak**

(...) потом в другом конце другой дом, потом близ города <b>деревенька</b> , потом и село со всеми угодьями.	(...) eta gero beste etxe bat hiriaren beste muturrean, eta gero <b>herrixka</b> bat hiritik hurbil, eta hurrena herri bat bere lur-sail guztiekin.
Он очень долго жал ему руку и просил убедительно сделать ему честь своим приездом в <b>деревню</b> , к которой, по его словам, было только пятнадцать верст от городской заставы.	Txitxikovekin erabat txoraturik, oso luzaz estutu zion eskua, eta sutuki eskatu <b>herrira</b> bisita egitera joateko ohorea egin ziezaiola, zeren, esan zionez, hamabost versta besterik ez zegoen <b>hiritik herrira</b> .
Проехавши пятнадцатую версту, он вспомнил, что здесь, по словам Манилова, должна быть его <b>деревня</b> , но и шестнадцатая верста пролетела мимо, а <b>деревни</b> все не было видно, и если бы не два мужика. попавшиеся навстречу, то вряд ли бы довелось им потрафить на лад. На вопрос, далеко ли <b>деревня</b> Заманиловка, мужики сняли шляпы, и один из них, бывший поумнее и носивший бороду клином, отвечал: (...)	Txitxikov gogoratu zen Manilovek esandakoaren arabera han egon behar zuela haren <b>herrixkak</b> , baina laster egingo zuten hamaseigarren versta, eta <b>herrixkaren</b> arrastorik ez; eta halako batean bi mujikekin topo egin ez balute, nekez lortuko zuten helmugara iristeko bidea aurkitzea. Zamanilovka <b>herrixka</b> urrun al zegoen galdeturik, txanoa erantzi zuten bi mujikek, eta bietako batek — bestea baino bizkorragoa eta bizar zorrotz mutur bakarrekoa— honela erantzun zuen: (...)
Уже по одному собачьему лаю, составленному из таких музыкантов, можно было предположить, что <b>деревушка</b> была порядочная; но промокший и озябший герой наш ни о чем не думал, как только о постели.	Horrelako musikarien eztarrietatik ateratako zaunka-hots haiek argi erakusten zuten, handi samarra zen <b>herrixka</b> hura; baina gure protagonistak, blai-blai eginik eta hotzez dardaraka, ohea beste pentsamendurik ez zuen buruan.

*Деревня* eta *деревенька/деревушка* kasuetan, koherentea dirudi errusieraz txikigarri bat ezartzen badio euskaraz ere txikigarri batekin itzultzea, hau da, «herri»ren ordeztze «herrixka» jartzea. Beharbada, errusieraz bi txikigarri desberdin erabiltzen dituzenez, euskaraz ere bi txikigarri jar zitzakeen, adibidez, «herritxo» edo «herriño». Alabaina,



*деревня* batek herrixka txiki eta aldendu bati egiten dio erreferentzia, horrenbestez, ez luke txikigarriren beharrik izango. Bestalde, euskarazko «herri» hitza nahiko arazotsua da, oso anbigua baita; sinonimoen artean *estatu*, *udalerri*, *lurralde*, *eskualde* eta abar daude, eta beraz, ez litzateke baliokiderik egokiena izango. Horretaz gain, argi dago itzultzailea ez dela batere koherentea izan eta ez dituela txikigarriak errespetatu ez eta baliokideak berdin mantendu ere.

Adibide hauetan ikusiko dugu itzultzailea ez dela batere koherentea izan *трактир* eta *гостиница* hitzetarako ordain bat erabiltzen duelako eta ondoren beste ordain desberdin bat ematen diolako. Hona hemen adibideak:

В ворота <b>гостиницы</b> губернского города NN въехала довольно красивая рессорная небольшая бричка (...)	NN probintzi hiriburuko <b>ostatuko</b> gurdi-atetik zaldi-kotxe txiki eta nahikoa polit bat sartu zen, baleztaduna eta arina, (...)
Когда экипаж въехал на двор, господин был встречен <b>трактирным</b> слугою, или половым, как их называют в русских <b>трактирах</b> , живым и вертлявым до такой степени, что даже нельзя было рассмотреть, какое у него было лицо.	Kotxea patioan sartu eta batera, <b>ostatuko</b> morroia —edo polovoia, Errusian horrela deitzen baitiete <b>ostatuetak</b> o zerbitzariei— jaunari harrera egitera irten zen.
Долго еще, во время даже самых прибыточных сделок, купцы, отправляясь в <b>трактир</b> запивать их чаем, поговаривали об антихристе.	Luzaro izan zuten hizpide antikristoa; irabazi handiko tratuak tea edanez ospatzeko <b>tabernan</b> elkartzen zirenetan ere, antikristoaz mintzatzen ziren.

Lehenengo adibideak ikusita, badirudi *трактир* eta *гостиница* «ostatu» bezala itzultzea erabaki duela itzultzaileak. Dena dela, hirugarren kasuan, *трактир* hitzari «taberna» ordaina eman dio. Errusierazko bi hitz horien definizioak ikusirik, sinonimoak direla edo gutxienez oso antzekoak direla ulertzen dut, bietan jan eta lo egin baitaiteke. Horregatik ez diot zentzurik ikusten «taberna» bezala itzultzeari. Horretarako hurrengo adibide honetako hitza dugu:

(...) только два русские мужика, стоявшие у дверей <b>кабака</b> против гостиницы, сделали кое-какие замечания, относившиеся, впрочем, более к экипажу, чем к сидевшему в нем.	(...) soilik bi mujik errusiarrek, ostatuaren aurrez aurreko <b>tabernako</b> atean baitzeuden, zertxobait esan zuten kotxeaz, hitz-erdirik ez, ordea, barruan zihoanaz.
--	--

*Кабак* batean bakarrik edan egiten da.

Euskaltzaindiaren hiztegiaren «ostatu»ren lehen definizioak dio «diru truke jan eta lo egiten den etxea» dela. Aldiz, bigarren adierak «taberna» esan nahi du, baina bakarrik Nafarroan eta Iparraldean. Hortaz, «ostatu» hitza Euskal Herri osoan «taberna» gisa ulertzen ez dela kontuan izanik, nik honakoa proposatuko nuke ordain: «ostatu» lo egin daitekeen errusierazko hitzentzat erabiliko nuke, eta «taberna», ordea, jan eta edan bakarrik egiten direnentzat.

Словом, ни одного часа не приходилось ему оставаться <b>дома</b> , и в <b>гостиницу</b> приезжал он с тем только, чтобы заснуть.	Hitz batean, Txixikov lo egitera soilik joaten zen <b>ostatura</b> , eta egunez ez zuen ordu bat bera ere ematen bere <b>bizitegian</b> .
--	---

«Bizitegia» hotela esateko gehiegizkoa iruditzen zait, baina errusieraz *дома* jartzen duenez, agian euskaraz ere esanahi bera eman nahi zion itzultzaileak. Beharbada nobela osoan zehar hotel berdinean lo egingo balu, «bizitegi» ez litzateke hain arraro izango, baina behin eta berriz ari da ostaturaz aldatzen, beraz, nire ustez, «ostatu» erabiltzearekin nahikoa da.

b) **Kultura soziala**: lanbideak, funtzionarioak, tituluak eta erregistroa

o **Lanbideak**

В ворота гостиницы губернского города NN въехала довольно красивая рессорная небольшая бричка, в какой ездят холостяки: отставные <b>подполковники</b> , <b>штабс-капитаны</b> , <b>помещики</b> , имеющие около сотни душ крестьян, - словом, все те, которых называют господами средней руки.	NN probintzi hiriburuko ostatuko gurdinatetik zaldi-kotxe txiki eta nahikoa polit bat sartu zen, baleztaduna eta arina, mutilzaharrek, hala nola <b>teniente koronel</b> erretiratuek, <b>kapitainordeek</b> edo nekazari-lanetan ehun arima inguru dituzten <b>lurjabeek</b> , hitz gutxitan, erdi-mailako jaunak deritzetenek erabili ohi dituzten britxka horietako bat.
---	---

Zeharkako itzulpena: *подполковник* ez da gehiagotan agertzen. *Штабс-капитан* beste behin agertzen da, eta ere «kapitainorde» bezala itzuli du, hortaz, koherente izan da. Aldiz, *помещик* «lurjabe» bezala itzuli du eta koherentea izan da, nahiz eta kasu batzuetan errusierazko hitz asko itzultzeko erabili du «(lur)jabe», besteak beste, *владелец* edo *хозяин*.

(...) только два русские <b>мужика</b> , стоявшие у дверей кабака против гостиницы, сделали кое-какие	(...) soilik bi <b>mujik</b> errusiarrek, ostatuaren aurrez aurreko tabernako atean baitzeuden, zertxobait esan zuten
---	---

замечания, относившиеся, впрочем, более к экипажу, чем к сидевшему в нем.	kotxeaz, hitz-erdirik ez, ordea, barruan zihoanaz.
"Пошла, старая попадья!", если же король: "Пошел, тамбовский мужик!"	«Horra popearen emazte zaharra!», eta honela, berriz, erregea bazen: «Horra Tambov-eko <b>nekazaria!</b> ».

Itzultzaileak, baliokiderik ez izanda edo errusiar hitz baten kutsua eman nahian, transferentziaz baliatu da, hau da, besterik gabe, errusierazko hitza euskaraz eman du. Horrez gain, behar-beharrezkoa iruditzen zait azalpenen bat ematea, eta oin-ohar batean azaltzea erabaki du itzultzaileak. Mujik, hain zuzen ere, «antzinako Errusian, gizonezko nekazariei deitzeko herri xeheak erabiltzen zuen hitz arrunta» da. Pentsatzekoa da behin mujik hitza zer den azalduta, eleberri osoan zehar erabiliko duela errusieraz *мужик* agertzen denean. Baina ez da hala, «mujik» eta «nekazari» erabiltzen ditu, baina «nekazari» bezala itzultzeko badu *крестьянин* hitza ere. Hori horrela, ez zait zentzuzko hautua iruditzen, hitza bere errusiar kutsuarekin mantentzea erabaki duelako, eta oster, ez du beti errespetatzen.

#### ○ Funtzionarioak

" <b>Коллежский советник</b> Павел Иванович Чичиков, помещик, по своим надобностям".	«Pavel Ivanovitx Txitxikov, <b>kolejio-kontseilaria</b> , lurjabea, neure zereginetarako etorria».
--	--

«Kolejio<sup>1</sup>» gobernu-sail nagusiei esaten zieten XVIII. mendetik XIX. mendera arte, hots, ministerioak sortu arte. Izen horri marratxoa eta lanbide baten izena gehiturik, sail horretako funtzionario bati egiten dio erreferentzia. Funtzionarioak hainbat mailatan banatzen ziren, 14 mailatan hain zuzen, eta hori bera azaltzen du itzultzaileak oin-oharretan.

Kasu honetan, bi itzulpen prozedura ageri dira: zeharkako itzulpena eta oin-oharra. Alde batetik, hitzez hitz itzuli du Txitxikoven lanbidea, eta bestetik, oin-ohar baten bidez azaldu digu zer esan nahi duen «kolejio-kontseilari» lanbideak.

Guztira hiru «kolejio-» mota agertzen dira nobelan: kolejio-kontseilari, kolejio-idazkari eta kolejio-erregistratzaile; itzultzailea koherentea da ondorengo bi adibideetan izan ezik. Lehenengo adibidean, errusieraz «коллежский советник»-ren orde «сколеской советник» erabiltzen du. Errusieraz gaizki esanda dago, zerbitzari zein

<sup>1</sup> Euskaltzaindiaren Hiztegiak ez du «kolejio» jasotzen, «kolegio» baizik.

nekazarien ezjakintasuna adieraztea du helburu, baina euskaraz ez da hori jaso, izan ere, itzultzaileak «kolejio-kontseilari» mantendu du.

Вот барина нашего всякой уважает, потому что он, слышь ты, сполнял службу государскую, он <b>сколеской советник</b> ...	Gure nagusia, esaterako, mundu guztiak errespetatzen dik, zeren, jakin ezak, Estatuaren zerbitzuan jardun dik lanean, <b>kolejio-kontseilaria</b> duk...
---	--

Bigarren adibidean, ordea, gehikuntza bat dago, errusieraz «коллежский» bakarrik agertzen delako eta euskaraz «kolejio-kontseilari».

Статский советник, по русскому обычаю, с горя запил, но <b>коллежский</b> устоял.	Estatu-kontseilariak, Errusian ohi dugunez, edanari eman zion, bihozmindurik; <b>kolejio-kontseilariak</b> , ordea, buru egin zion zorigaitzari.
---	--

Когда экипаж въехал на двор, господин был встречен трактирным <b>службою</b> , или <b>половым</b> , как их называют в русских трактирах, (...)	Kotxea patioan sartu eta batera, ostatuko <b>morroia</b> —edo <b>polovoia</b> , Errusian horrela deitzen baitiete ostatuetako <b>zerbitzari</b> ei— jaunari harrera egitera irten zen.
--	--

Adibidean ikus dezakegu *слуга* itzultzeko «morroi» zein «zerbitzari» hitzak erabili dituela. Eta horrez gain, transferentzia bat («polovoi») eta izen horri azalpena emango dion oin-ohar bat aurki ditzakegu. Hau da itzultzaileak oin-oharrean dioena: «hitz zaharkitua». Egia esateko, kontuan izanda XIX. mendeko eleberri baten aurrean gaudela, lanbideen lexiko gehiena dago zaharkitua, beraz, ez dut beharrezkoa ikusten oin-ohar hau. Naatik, eleberri osoan bilaketa eginez, egiaztatu dut «polovoi» hitza ez duela gehiagotan erabili, hots, testuinguruak testuan bertan azaltzea eskatzen ziolako besterik ez du jarri. *Половой* eta eta *слуга* itzultzeko, baliokide funtzionalez baliatu eta «morroi» eta «zerbitzari» bezala itzultzen ditu, hurrenez hurren.

○ **Tituluak, erregistroa**

(...) а в разговорах с вице-губернатором и председателем палаты, которые были еще только статские советники, сказал даже ошибкою два раза: " <b>ваше превосходительство</b> ", что очень им понравилось.	(...) eta gobernadoreordearekin eta ganberaburuarekin mintzatzean, okertu eta, artean estatu-kontseilariak besterik ez baziren ere, « <b>Jaun Goren hori</b> » esan zien bi aldiz, eta haiek oso ondo hartu zuten hanka-sartzea.
--	--

Nahiz eta oin-ohar baten bidez azaldu «Jaun Goren» titulua 2. mailakoei zegokiela, itzultzailea ez da tratamendu-formula horrekin koherentea, izan ere, ikusi berri dugun

kasuan izan ezik, *ваше превосходительство* itzultzeko, «Berorren Gorentasuna» darabil gainontzeko kasuetan:

- Что? много наторговал мертвых? Ведь вы не знаете, <b>ваше превосходительство</b> , - горланил он тут же, обратившись к губернатору	Zer?, hil asko erosi duk? <b>Berorren Gorentasunak</b> oraindik ez daki zer erosten duen honek? —esan zion garrasi batean gobernadoreari—.
--	--

Aldiz, *ваше высокопревосходительство* itzultzerakoan koherentea izan da, beti formula bera erabili baitu:

"Так и так, говорит, пришел, говорит, услышать приказ <b>вашего высокопревосходительства</b> по одержимым болезням и за ранами.."	«Berorregana etorri naiz jakitera zer erabaki duen <b>Berorren Gorentasun Txit Ohoragarriak</b> gaixo eta zaurituei buruz...»
---	---

Они скоро знакомятся, и не успеешь оглянуться, как уже говорят тебе "ты".	Berehala egiten dira guztien lagun, eta, konturatzen zarenerako, <b>hika</b> hasi zaizkizu.
---	---

Nire aburuz, nobela honetan, oso garrantzitsua da pertsonaiek beraien artean nola hitz egiten duten erakustea eta solaskidearen gizarte-mailaren arabeko ezberdintasunak nabarmentzea. Errusierazko testuan, pertsonaien gizarte-mailaren arabera, batak besteari *вы* edo *ты* erabiliz hitz egingo dio, eta euskaraz hori mantentzea ezinbestekoa da. Orokorrean, errusieraz *ты* erabiltzen denean, guk zuka egiten dugu, beraz, *вы* formalagoa izanik, zuka baino formalagoa den trataera erabili beharko litzateke: berorika. Beharbada gaur egungo nobela batean berorika egiteak ez luke zentzu handirik izango, baina kontuan izan behar dugu XIX. mendeko testu baten aurrean gaudela eta berorika, Euskal Herrian, XX. mende erdialdera arte erabiltzen zela. Hala eta guztiz ere, ez zait aukerarik egokiena iruditzen (ondoren ikusiko ditugun bi kasuetan izan ezik), eta itzultzailearen antzera, zuka maila jasoago bezala erabiliko nuke, eta hitanoa, informalena bezala. Nahiz eta nik egunerokotasunean ez erabili, euskaldun asko ohituak daude hitanoaren erabilerara, eta ohituak ez gaudenok, gutxienez, eskolan ikasi dugu nola erabiltzen den edota gure inguruan ezagutu dugu erabiltzen duen jendea. Horrenbestez, ulermen arazorik ematen ez duenez eta gizarte-mailak ezberdintzeko behar-beharrezkoa dela iruditzen zaidanez, itzultzaileak bi mujiken arteko elkarrizketa honetan egin duen hautua egokitzen ematen dut:

" <b>Вишь ты</b> , - сказал один другому, - вон какое колесо! что <b>ты думаешь</b> , доедет то колесо, если б случилось, в	— Begira nolako gurpilak! —esan zion batak besteari—. Zer uste <b>duk?</b> , behar izanez gero, Moskuraino iritsiko lirateke?
---	---

Москву или не доедет?" - "Доедет", - отвечал другой. "А в Казань-то, я думаю, <b>не доедет?</b> " - "В Казань <b>не доедет</b> ", - отвечал другой.	— Bai —erantzun zuen besteak. — Eta Kazan-eraino? Ezetz uste <b>diat</b> nik. — Ez, Kazaneraino ez <b>lituzkek</b> iritsiko —erantzun zuen besteak.
---	---

Jarraian aurkeztuko ditudan adibideetan, ordea, itzultzaileak «berorika» erabiltzeko beharra izan du. Arrazoia gizarte-mailen arteko desberdintasunak oso markatuak direla izan liteke, eta nire ustez erabaki hori justifikatu daiteke. Bi kasuetan pertsonaia bera ari da (Kopeikin); lehenengoan enperadoreari zuzentzen ari zaiola imajinatzen du, eta bigarrenean, aldiz, ministro bati. Zuka hitz egitea informalegia izan litekeela kontuan izanik, berorika justifikatua legoke nire iritzian:

"что вот-де, так и так, в некотором роде, так сказать, жизнью жертвовал, проливал кровь..."	«Aintzat hartu beharko luke <b>berorrek</b> bizia emateko prest egon naizela [...]»
"Так и так, говорит, пришел, говорит, услышать приказ вашего <b>высокопревосходительства</b> по одержимым болезням и за ранами..",	« <b>Berorrengana</b> etorri naiz jakitera zer erabaki duen Berorren Gorentasun Txit Ohoragarriak gaixo eta zaurituei buruz...»,

c) **Erakundeak**: politiko-administratiboa

o **Politiko-administratiboa.**

В ворота гостиницы <b>губернского города</b> NN въехала довольно красивая рессорная небольшая брчка, (...)	NN <b>probintzi hiriburuko</b> ostatuko gurdi-atetik zaldi-kotxe txiki eta nahikoa polit bat sartu zen, baleztaduna eta arina, (...)
--	--

*Губерния* XVII. mende hasieratik 1929. urtean Sobietar Batasunean egin zen eskualdekatzera arte errusiar estatuko lurralde eta administrazio unitate handiena zen.

**Kultura-baliokidea**: normalean, euskaraz, «probintzia» baliokidea ematen zaio, eta egokia da, kontzeptu administratiboa baita. Baina, Euskal Herriko banaketa administratiboari erreparatuz eta «probintzia» hitzak zer iradokitzen digun kontuan izanik, «eskualde», «lurralde» edota «herrialde» hitzetako bat ere aukera zezakeen, izan ere, probintziek «lurralde historiko» izendapena dute. Hala ere, itzultzailearen hautua egokia da eta garrantzitsuena da testu osoan zehar baliokide bera erabili duela *губерния* hitzerako.

(...) raspросил внимательно о состоянии <b>края</b> : не было ли каких болезней в их губернии - повальных горячек, убийственных какие-либо лихорадок, оспы и тому подобного,	(...) jakinminez galdetu zuen nolakoa zen <b>lurrealdeko</b> egoera: ea probintzia hartan bazegoen gaitzen bat zabaldurik, hala nola sukar-epidemiaren bat, edonolako sukar hilgarririk, nafarrerria edo bestelako eritasunik.
--	--

Kultura-baliokidea: kasu honetan, itzultzaileak «lurrealde» izena aukeratu izana egokia da, kontzeptu administratiboa baino gehiago geografikoa baita. Hala eta guztiz ere, esan beharra dago nobelan agertzen diren beste adibide batzuetan ez duela itzultzen berdin, eta adibide batean, *пространство* hitza ere euskaraz «lurrealde» eman du.

"Нет, не в носу, а в здешнем же <b>уезде</b> , именно: Петр Петрович Самойлов: вот управитель, какой нужен для мужиков Чичикова!"	«Ez, neure sudurraren azpian ez, baina bai <b>barruti</b> honetan bertan. Piotr Petrovitx Samoilov, horra Txixikoven mujikek behar duten administratzailea!»
---	--

Sobietar Batasuna sortu zenean desagertu egin ziren *уезд*ak, eta gaur egungo *округ*-ei dagokie.

Kultura-baliokidea: euskaraz «barruti» baliokidea ematea egokia da, «distritu»ren sinonimo bezala ulertzen duguna. Nahiz eta baliokide hori darabilen testu ia osoan zehar, adibide batzuetan ez du koherentzia mantendu eta «probintzia» hitza erabili du, adibidez: «что в губернских и **уездных** городах» → «**probintzietako** hiri eta herrietan» edo «в какое-нибудь мирное захолустье **уездного** городишка» → «**probintzietako bazter herrirka** baketsu batera».

*Уезд* hitzaren jarraitzeko, eremu honetako poliziaei nola esaten zitzaizkien eta itzultzaileak nola itzuli dituen ikusiko dugu:

- <b>Капитан-исправник</b> . - А что вам угодно?	— <b>Barruti honetako poliziaburu</b> naiz. — Eta zer nahi duzu?
Во время обедни у одной из дам заметили внизу платья такое руло, которое растопырило его на полцеркви, так что <b>частный пристав</b> , находившийся тут же, дал приказание подвинуться народу подальше, (...)	Behin batean, dama batek hain merinake zabala eramane zuen mezatarara soinekoaren azpian, ezen soinekoak eliza erdia betetzen baitzuen, <b>eta barrutiko poliziaburuak</b> , hantxe baitzegoen, herritarrei agindu zien atzerantz joateko, (...)

Gehiketa: nahiz eta testu zati horietan ez den *уезд* inondik ere agertzen, itzultzaileak «barruti» hitza gehitu du bi adibideetan. Zilegi da baliabide hori erabili izana, mota honetako errealitate kultural eta historiko horien euskal ordainak ematea oso zaila baita. Era berean, argi dago dokumentazio-lana egin duela eta egiaztatu duela *исправник* eta *частный пристав* barrutien mailako poliziak zirela. Alabaina, lehenengo kasuan ondo itzuli duen arren, bigarren itzulpena ez da zuzena, izan ere, kargu horiek ez dira berberak, alegia, *капитан-исправник* kargu garrantzitsuagoa zen. Beraz, hobeto dokumentatu beharko litzateke eta kargu-mailak ondo bereizi.

**d) Pertsona-izenak eta leku-izenak**

o **Pertsona-izenak**

<p>(...) дана была полтина меди на расход и лакомства и, что гораздо важнее, умное наставление: "Смотри же, <b>Павлуша</b>, учись, не дури и не повесничай, а больше всего угождай учителям и начальникам... (...)</p>	<p>(...) berrogeita hamar kopek eman zizkion semeari —gastuetarako eta gozokiak erosteko—, baita aholku zuhur batzuk ere, askoz garrantzitsuago baitzeritzon horri: «Hara, <b>Pavlusha</b>, ikasi, zintzoa izan eta ez egin inozokeriarik, eta, batik bat, atsegin eman irakasleei eta eskolaburuei (...)</p>
--	---

Pavlusha gure protagonista Pavel-en txikigarria dela jakitea zaila izan daiteke euskal irakurlearentzat, batez ere, nobela osoan ez delako bere izena askotan agertzen, Txitxikov baizik. Hortaz, irakurleak beste pertsona batez ari dela pentsa lezake. Kasu honetan, Txitxikov eta bere aitaz ari da idazlea, eta adibide honetan ulertu daiteke hala deitzen diola aitak, baina ez dut beharrezkoa ikusten euskaraz Pavlusha jartzea. Euskal Herrian, Errusian ez bezala, ez dago pertsona-izenei txikigarriak jartzeko ohiturarik; errusiar izen guztiek dute txikigarri bat edo gehiago. Agian Errusian arraroa izango litzateke aita batek bere semeari Pavel deitzea, txikigarririk gabe, baina guri ez zaigu arrotza egiten, beraz, nik honela jarriko nuke: «Hara, Pavel, ikasi, zintzoa izan eta ez egin inozokeriarik, eta, batik bat, atsegin eman irakasleei eta eskolaburuei (...)

Hala ere, itzultzaileak Pavlusha jarri nahi badu, nik oin-ohar bat gehituko nioke, besterik gabe Pavelen txikigarria dela azaltzen.



<p>Когда Чичиков взглянул искоса на Собакевича, он ему на этот раз показался весьма похожим на средней величины медведя. Для довершение сходства фрак на нем был совершенно медвежьего цвета, рукава длинные, панталоны длинные, ступнями ступал он и вкривь и вкось и наступал беспрестанно на чужие ноги. Цвет лица имел каленый, горячий, какой бывает на медном пятаке. Известно, что есть много на свете таких лиц, над отделкою которых натура недолго мудрила, не употребляла никаких мелких инструментов, как-то: напильников, буравчиков и прочего, но просто рубила со своего плеча:хватила топором раз - вышел нос,хватила в другой - вышли губы, большим сверлом ковырнула глаза и, не обскобливши, пустила на свет, сказавши: "Живет!" Такой же самый крепкий и на диво стаченный образ был у <b>Собакевича</b>: держал он его более вниз, чем вверх, шейей не ворочал вовсе и в силу такого неповорота редко глядел на того, с которым говорил, но всегда или на угол печки, или на дверь. Чичиков еще раз взглянул на него искоса, когда проходили они столовую: <b>медведь! совершенный медведь!</b> Нужно же такое странное сближение: <b>его даже звали Михайлом Семеновичем.</b></p>	<p>Zeharka begiratu ziola, Txitxikovek tarteko tamainako hartz baten antz ikaragarri handia hartu zion oraingoan Sobakevitxi. Horrelako antza biribiltzeko, hartz-larruaren kolore berdin-berdinekoa zuen fraka, luzeak mahukak, luzeak galtzak, baldarra eta koloka ibilera, eta besteen oinak zapaltzen zituen behin eta berriro. Gorrimina zen haren aurpegia, sukolora, kobrezko kopeken antzekoa. Gauza jakina da munduan badirela tankera horretako aurpegi ugari: naturak berehalako batean itxuratu ditu, azken ukituak emateko nekerik hartu gabe, karrakarik, ginbaletik edo bestelako lanabes finik erabili gabe; kolpe gogor batzuk emanez taxutu ditu, zirti-zarta: aizkorakada bat eman, eta sudurra egin du; beste aizkorakada bat, eta horra ezpainak; daratulu handi batez egin ditu begiak; eta horrelaxe jaurti du mundura, batere leundu gabe, esanez: «Bizi hadi!». Bada, horrelakoxea zen <b>Sobakevitxen</b> aurpegia ere, mardula, zarpaila, landu gabea; gorantz jatorik eutsi beharrean, beherantz makurturik eduki ohi zuen burua, lepoa ez zuen guztiz jiratzen eta, baldarkeria horren eraginez, gutxitan begiratzen zion solaskideari, eta, horren orde, atean edo labetxoaren ertz batean jartzen zituen begiak beti. Jangela zeharkatzen ari zirela, Txitxikovek betertzetik begiratu zion berriro: <b>hartzaren!, benetako hartzaren!</b> Eta, antz harrigarri hori gutxi balitz, <b>hara non, gainera, Mikhail Semionovitz zuen izena!</b></p>
---	--

Abizenei dagokienez, garrantzitsua iruditzen zait pertsonaia batzuenak azaltzea. Sobakevitx-en kasuan, argi dago abizena *собака* hitzetik eratorria dela, hots, «txakur» hitzetik. Hortaz, hitz-jolas bat egin zezakeen itzultzaileak eta transliteratu orde z Txakurgoitia edo horrelakoren bat asmatu. Hala ere, Txitxikovek, txakur baten antza baino, hartz baten antza hartzen dio Sobakevitxi. Gainera, Mikhail du izena, eta itzultzaileak argi azaltzen duenez 143. orrialdeko oin-oharrean, «*Mikhail* izenaren txikigarria *Misha* edo *Mishka* da. Horixe da, hain zuzen ere, *medved* (hartzaren hitzaren

txikigarria ere». Oin-oharra behar-beharrezkoa da, bestela ez bailitzateke ulertuko Txitxikoven harridura Mikhail deitzen dela jakiten duenean.

<p>Отдохнувши, он написал на лоскутке бумажки, по просьбе трактирного слуги, чин, <b>имя и фамилию</b> для сообщения куда следует, в полицию.</p>	<p>Atseden hartutakoan, eta ostatuko morroiak hala eskaturik, gizarte-maila eta <b>izen-deiturak</b> idatzi zituen paper-puska batean, poliziari horren berri jakinarazi beharra zegoen eta.</p>
---	--

Errusieraz «имя и фамилия» jartzen du, hau da, «izena eta abizena». Itzultzaileak ondo daki Errusiako deitura sistema hemengoaren ezberdina dela, gurean izena, aitaren abizena eta amaren abizena erabiltzen baitugu, eta Errusian, ordea, izena, patronimikoa eta aitaren abizena; adibidez, Pavel Ivanovitx Txitxikov. Azalpenik edo gehiketarik ez jartzeko, itzultzaileak «izen-deiturak» erabiltzen du, eta aukera egokia dela iruditzen zait, «deitura» orokorragoa baita eta «izen-abizenak» jartzea ez bailitzateke berdina izango.

Ondorengo adibide honetan ikus dezakegu bereizi egiten dituela abizena eta patronimikoa:

<p>- Однакожмужичкинавиддюжие, избенкикрепкие. А позвольте узнать <b>фамилию</b> вашу. Я так рассеялся.. приехал в ночное время...          - <b>Коробочка</b>, коллежская секретарша.          - Покорнейше благодарю. А <b>имя и отчество</b>?          - <b>Настасья Петровна</b>.</p>	<p>— Hala ere, itxuraz behintzat, nekazariak indartsuak dira, eta izbak sendoak... Baina esadazu, mesedez, zure <b>abizena</b>. Galdetzea ahaztu zitzaidan atzo... gau beranduan heldu nintzen eta...          — <b>Korobotxka</b>, kolejio-idazkaria.          — Mila esker. Eta <b>izena eta patronimikoa</b>?          — <b>Nastasia Petrovna</b>.</p>
---	---

### o Leku-izenak

<p>Попадались почти смытые дождем вывески с кренделями и сапогами, кое-где с нарисованными синими брюками и подписью какого-то <b>Аршавского</b> портного; где магазин с картузами, фуражками и надписью: (...)</p>	<p>Euriak ia ezabaturiko horma-irudiak ikus zitezkeen nonahi: hemen, botak eta zortzi-itxurako opilak zeuzkaten pintaturik; hor, berriz, galtza urdinak <b>Arshoviako</b> jostun baten sinaduraren alboan; han, kapeluak eta txanoak saltzen zituen denda bat ageri zen, idazpuru honekin: (...)</p>
---	--

Akatsa izan behar du, Arshovia ez baita existitzen. Garai hartan errusieraz *Аршава* esaten zioten (gaur egun *Варшава*) Poloniako hiriburuari, alegia, Varsovia hiriari, eta

horregatik idatzi zuen hala Gogolek. Itzultzaileak, beraz, Arshoviaren ordeztan Varsovia jarri beharko luke.

<p>"Вишь ты, - сказал один другому, - вон какое колесо! что ты думаешь, доедет то колесо, если б случилось, в Москву или не доедет?" - "Доедет", - отвечал другой. "А в <b>Казань</b>-то, я думаю, не доедет?" - "В <b>Казань</b> не доедет", - отвечал другой.</p>	<p>— Begira nolako gurrpilak! —esan zion batak besteari—. Zer uste duk?, behar izanez gero, Moskuraino iritsiko lirateke? — Bai —erantzun zuen besteak. — Eta <b>Kazan-eraino</b>? Ezetz uste diat nik. — Ez, <b>Kazaneraino</b> ez lituzkek iritsiko —erantzun zuen besteak.</p>
---	---

Transferentzia: adibide honetan ikusi dugun legez, itzultzaileak Kazan bere baitan utzi du. Azaldu zezakeen non dagoen kokatuta, gaur egungo Tatarstango hiriburua dela eta abar, baina nire ustez, itzultzaileak nahikoa gauza ditu dagoeneko azaltzeko eta kasu hau ez zait garrantzitsuegia iruditzen. Euskal irakurlearentzat hau azaltzea ez dut beharrezkoa ikusten, eta Errusiako hiriei buruz gehiago jakin nahi duenak bilatuko du informazio gehiago. Hala ere, imajinatzen dut nobela hau irakurtzen duten guztiei interesatuko zaiela Errusia eta dagoeneko ez badute leku-izen horien berri, informazioa bilatuko dutela.

## 5. ONDORIOAK

Edozein itzulpen-lan egiteko garaian ezinbestekoak dira bi alderdi ezin hobe ezagutzea: sorburu-hizkuntza eta xede-hizkuntza. Baina, jakina, hizkuntzak hainbat elementuk osatzen dituzte. Jose Moralesek Koldo Biguriri eskainitako elkarrizketan honela zioen: «STri dagokionez, berebiziko garrantzia du hizkuntza horren jabe den herriaren historia, kultura, ohiturak, literatura eta horrelakoak ezagutzeak, zeren eta itzultzaileak euskaratu behar dituen hitz, esaldi, esamolde, atsotitz eta pasarteetako asko kultur konnotazioz beterik baitaude, eta itzultzaileak jakin behar du hitzen azpian dagoen ezkutuko mundu hori modu egokian jasotzen» (Biguri, 1998). Horrez gain, itzulpengintzak eskaintzen dituen teknikak eta baliabideak ezinbestekoak dira STek ematen dituzten zailtasun horiei aurre egiteko.

*Arima Hilak* eleberria kultura-erreferentziaz beteta dago eta horiek euskal bertsioan emateak buruhauste franko eragingo zizkion itzultzaileari. Ez daukat zalantzarik SHko kultura XHn ahalik eta hoberen adierazteko hautatu dituen itzulpen-baliabideak hausnarketa luzeen ondorio direla. Orokorrean, transferentziaz baliatu da kultur hitzak itzultzeko garaian. Transferentziaren erabilera oso egokia iruditzen zait, errusiar eleberriaren kutsua mantendu egiten baitu, eta hala, errusiar kulturara gerturatu egiten zara. Alabaina, errusierazko hitza bere baitan uzteak ez dio ezer errazten euskal irakurleari, eta horri konponbidea emateko, oin-oharrak erabili ditu. Behar-beharrezkoak ikusten ditut oin-oharrak, izan ere, kulturari erreferentzia egiten dien kontzeptu ugari daude, eta irakurleak ezin du behin eta berriro hiztegi-tara edo informazio iturrietara joko.

Bestalde, errusiar kulturako elementuak euskal ordain batekin ematen ere lan handia egin du itzultzaileak eta elementu moten arabera, kultura-baliokidez, funtzionalez zein deskriptiboez baliatu da. Horrek dokumentazio-lan handia eskatzen du, alde batetik SHko kultura-kontzeptua bera eta harekin loturiko ezaugarriak ondo ezagutzeko, eta bestetik, XHn baliokide berdina duen kontzeptu bat bilatu eta aurkitzeko. Eleberri honetan bereziki ikaragarri zaila iruditzen zait baliabide hori erabiltzea, XIX. mendeko nobela bati buruz ari baikara eta gaur egun zaharkituak geratu diren eta erabili ere egiten ez diren hitzak aurki baitaitezke.

Laburbilduz, iruditzen zait itzultzaileak lan handia egin duela euskal irakurleari eleberria errazten, baina halako nobela bat irakurtzeko, irakurleak behar-beharrezkoa izango du errusiar kulturaren inguruko aurretiko jakintza, edo gutxienez, interesa.

## 6. BIBLIOGRAFIA

Biguri, K. (1998). «Jose Moralesekin elkarrizketa», *SENEZ* 20.

Cillero, Javi. (1996) «Kultur hitzen itzulpena literatura testuetan.» in *Senez*. Donostia.

Sarean: <http://www.eizie.eus/Argitalpenak/Senez/19960701/cillero>

Gogol, N. V. (2012). *Mertvye dushi: Pozma* Azbuka.

Gogol, N. (1998). *Arima hilak*. Morales Belda, J. [itz] Euba: Ibaizabal.

Rojo, J. (1999) «Gizarte kritika». *El Correo*. Sarean:

<http://kritikak.armiarma.eus/?p=2042>

Newmark, P. (1988). *A textbook of translation* (pub ed.) Prentice-Hall.

Nida, E. (1975 [1945]). *Exploring Semantic Structures*. Munich: Wilhelm Fink Verlag.

Ordudari, M. (2007). «Translation procedures, strategies and methods», *Translation*

*Journal*. Sarean: <http://translationjournal.net/journal/41culture.htm>

Sancho Insausti, I. (2015): *Errusierazko perpau erlatiboen euskaratzea: hizkuntza-sistematik itzultzailearen estilora*. Euskal Herriko Unibertsitatea.